

**Aldez aurreko kontsulta publikoa, Hezkuntza Kontseilariak maiatzaren 21ean emandako 49/2013 Foru Agindua aldatzen duen Foru Aginduari buruzkoa. Foru agindu haren bidez, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxeetan ematen diren unibertsitatez kanpoko irakaskuntzetako ikasleak ebaluatzeko prozesuan erreklamazioak egiteko sistema ezarri zen. Aldaketa araubide bereziko hizkuntzen irakaskuntzei dagokie, eta Gobernu Irekiko Atarian paratzen da partaidetzarako**

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikulua ezartzen duenez, lege baten edo erregelamendu baten proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren web atariaren bitartez, eta jasoko da zer iritzi duten datorren arauaren eraginpean gerta litezkeen subjektu eta ordezkariak handieneko erakundeek, puntu hauei buruz:

- A) *Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.*
- B) *Araua onestea beharrezkoa eta egokia den.*
- C) *Arauaren helburuak.*
- D) *Zer beste konponbide egon litezkeen (arauak edo arau ez direnak).*

Agiri honen helburua da alderdi horiei konponbidea ematea, baita oinarri izatea ere foru agindu berria egin aurreko kontsulta publikorako, horren bidez aldatuko baita Hezkuntza kontseilariak maiatzaren 21ean emandako 49/2013 Foru Agindua, zeinak ezarri baitzuen Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxeetan ematen diren unibertsitatez kanpoko irakaskuntzetako ikasleak ebaluatzeko prozesuan erreklamazioak egiteko sistema. Aldaketa araubide bereziko hizkuntzen irakaskuntzei dagokie.

- A) *Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.*

Urtarrilaren 11ko 1/2019 Errege Dekretuak oinarrizko ebaluaziorako printzipio komunak ezartzen ditu araubide bereziko hizkuntzen irakaskuntzetako B1 eta B2 tarteko mailak eta C1 eta C2 maila aurreratuak ofizialki ziurtatzeko probetarako, eta 8. artikuluan (Emitzak argitaratzea eta kalifikazioei buruzko erreklamazio-prozedurak) ezartzen dituen prozedurak ez datoz bat Hezkuntza kontseilariak maiatzaren 21ean emandako 49/2013 Foru Aginduaren VI. KAPITULUAN (Hizkuntzen irakaskuntzetako azken ebaluazioen gaineko erreklamazioak) jasotakoekin. 49/2013 Foru Aginduaren bidez ezarri zen Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxeetan ematen diren unibertsitatez kanpoko irakaskuntzetako ikasleak ebaluatzeko prozesuan erreklamazioak egiteko sistema.

Proposatzen den Foru Agindu honek 49/2013 Foru Aginduaren VI. kapitulua aldatu nahi du, oinarrizko araudira, hots, 1/2019 Errege Dekretura egokitzeko.

*B) Araua onestea beharrezkoa eta egokia den.*

Araudi autonomikoa Estatuko oinarrizko arauarekin bateratzeko, lehenbailehen argitaratu behar da foru agindu hau, 2020-2021 ikasturtean Hizkuntza Eskola Ofizialetako ziurtatze-prozesuetan erreklamaziorik izanez gero jarraitu beharreko araua izan dadin.

*C) Arauaren helburuak.*

Foru Agindu honen xedea da irizpideak arautzea araubide bereziko hizkuntzen irakaskuntzen ziurtatze-probetarako erreklamazio prozesuetarako.

*D) Zer beste konponbide egon litezkeen (arauak edo arau ez direnak).*

Ez da aurreikusten beste konponbiderik (araurik edo arau ez denik).

Agiri hau interesdunen eskura jartzen da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Gobernu Irekiaren Atarian, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 eta 133.4 artikuluetan xedatuarekin bat (39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa).

Iruñean, 2021eko otsailaren 18an

ELEANIZTASUNAREN ETA ARTE IKASKETEN  
ZERBITZUKO ZUZENDARIA

ATZERRIKO HIZKUNTZEN ATALEKO BURUA

*Sinadura jatorrizkoan dago*

*Sinadura jatorrizkoan dago*

Ignacio Miguel Catalán Librada

Iñaki Salegui Ciordia